

Gazte
langabeak
euskal
enpresetan
kontratatzeko
laguntzen
deialdia



Lehen Aukera
programa
2021 (EHAA 2021/05/10)





00 Xedea

Titulua edo prestakuntza izanik ere beren tituluarekin lotutako lanetan esperientzia gutxi edo batere esperientziarik ez duten gazte langabeak euskal enpresek edo bestelako erakundeek kontratatzeko oinarriak ezartzea eta horretara bideratutako laguntzak arautzea, haien enplegagarritasuna hobetzeko neurri gisa, lan-esperientzia lortzearen eta haien laneratzea sendotzearen bidez.

01

Baliabide ekonomikoak



Baliabide Ekonomikoak

Mugagabeko eta praktikaldiko kontratuen finantzazioa

2021. urterako ordainketa-kreditua:
2.000.000 €

2022.ko konpromiso-kreditua:
1.846.154 €

Guztira: 3.846.154 €

Erakunde kolaboratzaileek lan-eskaintzak jaso, erregistratu eta kudeatzeko eta/edo trantsizio-prozesuaren kudeaketa eta jarraipena egiteko finantzazioa

2021. urterako ordainketa-kreditua:

Guztira: 153.846 €



**DIRU-LAGUNTZA
GUZTIRA
LEHEN AUKERA:
4.000.000 €**

A grayscale background image showing a group of people in a meeting. In the foreground, a person's hand is writing on a document with a pen. To the right, another person's arm with a watch is visible. In the background, a person is looking at a tablet. The overall scene suggests a collaborative work environment.

02

Diru-laguntza jaso dezaketen jarduerak

01. Enpresak

Kontratu mugagabeak edo praktikaldiko kontratuak

- EAEn dauden lan-zentroetako lanpostuetan jarduteko lan-kontratu mugagabeak eta gutxienez 6 hilabete irauten duten praktikaldiko kontratuak; gazteok langabetuak eta Lanbiden enplegu-eskatzaille gisa izena emanda egon behar dute.
 - **2021eko urriaren 29** arte.
 - Lanaldi osoa edo partziala (inoiz ez ezarritako lanaldiaren % 70etik beherakoa).
 - Lanpostuak kontratatutako pertsonaren ikasketa-mailari edo trebakuntzari egokituta egon beharko du.
 - Idatziz formalizatu beharko da, eta titulazioa, hasiera- eta amaiera-data, iraupena eta lanpostua Lehen Aukera programa eta, beharrezkoa bada, kontratu dagokion eskaintzaren erreferentzia aipatuz.
 - Kontratazioek **enplegu sorrera garbia** eragin beharko dute, kontratatutako pertsonak enpresan sartu aurreko sei hiletako batez besteko langile kopurua kontuan hartuz. Kontratazio-egunean, kontratu berriak lehen aipatutako batez bestekoa handitzea ekarri behar du.
- Azken ondorioetarako, adierazitako baldintza ez da betegabetzat hartuko kontratuak arrazoi hauengatik amaitu badira: bidezko diziplinazko kaleratzea, dimisioa, desgaitasuna, adinagatik erretiroa hartzea, lan-denbora borondatez murriztea, langileen ezintasun iraunkor osoa, absolutua edo baliaezintasun handia.
- Senidetasun-falta, 3.4. a) artikuluaaren arabera.
 - Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren edozein deialditan diruz lagungarriak diren jardueri lotuta gauza ez daitezkeen kontratuak, edo deialdi horien barruan diruz lagunduak izan ez direnak.

— **Urteko ordainsari gordina** kontratuan zehaztu beharko da eta deialdiaren 3.2.c) artikulua ezarritako gutxienekoen arabera egin beharko da:

Titulu akademikoa	Urteko gutxieneko ordainsari gordina (aparteko pagak barne)
Lizentziatura, Ingeniaritza, Arkitektura edo Masterra-Boloniako Plana, Unibertsitateko diplomatura, Ingeniaritza teknikoa, Arkitektura teknikoa edo Unibertsitateko Gradua- Boloniako Plana	21.200,00 €
Goi-mailako heziketa-zikloak (LH II)	18.200,00 €
Erdi-mailako heziketa-zikloak (LH I), Oinarizko lanbide heziketa eta Profesionaltasun Ziurtagiria	14.000,00 €


Edonola ere, Langileen Estatutuan egiten diren aurreikuspenetara egokitu beharko dira, eta aplikatzekoa den gainerako arauetara ere.

02. Erakunde kolaboratzaileak

Deialdi honen 12. artikulua araututako erakunde kolaboratzaileek enplegu-eskaintzak bildu, erregistratu eta kudeatzea, bai eta trantsizio-prozesuaren kudeaketa eta jarraipena ere, prozesu horiek, azkenean, eta deialdi honen babesean, diruz lagun daitezkeen kontratuak formalizatuta amaitzen badira.

03

Enpresa eta erakunde onuradunak



01. Enpresak

Enpresa pribatuak (edozein dela ere haien forma juridikokoa), banako enpresaburuak, ondasun-erkidegoak, sozietate zibilak, elkarteak eta fundazioak, baldin eta hurrengo **baldintza** hauek betetzen badituzte:

- a. Helbide soziala eta fiskala EAEn izatea edo lantokia EAEn egotea.
- b. Herri-administrazio batek edo gehiagok enpresa horretan % 50etik gorako partaidetza ez izatea, ez zuzenean ez zeharka.
- c. Enpresaren langileen legezko ordezkaritzari jakinarazi izana deialdi honen babesean kontratatzeko asmoa dagoela. Enpresak berariaz adierazi beharko du eskabidean langileen legezko ordezkaritzarik duen ala ez.
- d. Aldez aurretik Europar Batasuneko Batzordeak hartutako erabaki baten ostean ez egotea erreuperatzeko agindu bati lotuta, zeinak laguntza bat merkatu erkidearekin bateraezina edo legez kanpokoa dela baitu.

Enpresek eta erakunde onuradunek bete beharreko baldintza orokorrak:

- a. Zerga-betebeharretan eta Gizarte Segurantzarekikoetan egunean egotea.
- b. Egunean izatea diru-laguntzak itzultzeko betebeharren ordainketa.
- c. Emakumeei eta gizonei tratu eta aukera berdinei emateko printzipioaren arabera izatea haren helburuak eta xedeak, hartzeko edo sartzeko sistema, funtzionamendua, ibilbidea, jarduera, antolakundea edo estatutuak.
- d. Zigor- eta administrazio-arloan diru-laguntza edo laguntza publikoak lortzeko aukera galtzeko zigorrak jaso ez izana, eta horretarako ezgaitzen duen legezko debekurik jaso ez izana, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen arabera sexu-diskriminazioarengatik gertatutakoak barne edo Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eftiborako martxoaren 30eko 3/2007 Lege Organikoa.
- e. Ez egotea Diru Laguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13an artikuluan diru-laguntzak eskuratzeari dagokionez aurreikusitako ezein debeku-egoeratan.

Honako hauek ezin izango dira erakunde onuraduna izan:

- Erakunde autonomoak.
- Sozietate publikoak.
- Administrazio publiko baten mendekoak diren elkarteak edo erakundeak.
- Eskura jartzeko enpleguetarako ABLEak.

Diru-laguntzak emateko eta, hala badagokio, **ordaintzeko**, amaitu egin beharko dira itzultze- edo zehapen-prozedurak, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak eta haren organismo autonomoek emandako antzeko diru-laguntzen esparruan hasitako eta izapideetan dauden prozedurak alegia.

Enpresa onuradunen betebeharrak:

01 Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorren 14. eta 46. artikuluetan oro har ezarritakoak, baita Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bateginak (azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren bidez onetsia) 50.2 artikuluan jasotakoak ere.

Bereziki, honako hauek:

- a. Kontratuak 7.1.a artikuluan jasotako hautaketa-prozeduraren bidez egingo dituzten enpresek, kontratuak egin aurretik, hautaketa egin beharko dute kontratatuko den pertsonak ikasketak egin dituen entitate kolaboratzailea den prestakuntza-zentroraren bidez, ikastetxeak egiazta dezan 5.1 eta 5.2.a artikuluetan ezarritako baldintzak eta 13.5 artikuluan adierazitako kudeaketaren eta prozesuaren jarraipenaren gainerako xehetasunak betetzen direla.
- b. Kontratuak 7.1.b artikuluan jasotako hautaketa-prozeduraren bidez egingo dituzten enpresek Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuan edo haren erakunde kolaboratzaile batean aurkeztu beharko dute enplegu-eskaintzak kudeatzeko eskaera.
- c. Diru-laguntza ematea eragin zuen jarduera gauzatzea.
- d. Plantillaren enplegu-mailari eustea 9. artikuluan adierazitako kontratuen gutxieneko iraunaldian.
- e. Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren aurrean justifikatzea laguntza jasotzeko betebeharrak eta baldintzak bete direla.

- f. Honako hauen egiaztatze-jarduketei baiezkoa ematea: Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzua, Enpleguko eta Gizarte Politiketako Saila, Ogasun eta Finantza Saileko Kontrol Ekonomikoko Bulegoa, Herri Kontuen Euskal Epaitegia, eta Europako funtsen kontrol-instantziak. Diruz lagun daitezkeen gastuak Europako Gizarte Funtserako aukeratuak izateko baldintzak beteko badituzte, erakunde onuradunean gastuaren kontabilitate-erregistro bat eraman behar da, kontabilitate-identifikazio bereizi batekin edo kontabilitate-kode egoki batekin.
- g. Helburu berberarekin administrazio honen bidez edo beste edozein administrazio publiko edo erakunde publiko nahiz pribatutatik diru-laguntzak edo laguntzak jasoz gero, horren berri ematea Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuari.
- h. Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuari jakinaraztea diru-laguntza emateko kontuan izan den edozein baldintzaren aldaketa, baita diruz lagundutako jardueren xedeari edo izaerari nabarmenki eragiten dion edozein gertakizun ere.
- i. Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuari laguntzea jarduera horiek egiaztatzeko, haien jarraipena egiteko eta kontrolatzeko.
- j. Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorak eta haren erakunde autonomoek, zuzenbide pribatuko erakunde publikoek eta sozietate publikoek emandako izaera bereko laguntzen edo diru-laguntzen esparruan hasi, eta oraindik izapidetzen ari den edozein itzultze- edo zehapen-prozedura jakinaraztea Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuari.

k. 2014-2020rako Gazte Enplegurako Programa Operatiboaren edo 2014-2020ko EGF Programa Operatiboaren esparruan, deialdi honen babesean diruz lagundutako komunikazio-, zabaltze-, edo argitalpen-material eta ekintza guztietan, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak eta Europako Gizarte Funtsak elkarrekin finantzatu dituztela adieraztea. Enpresa onuradunen zerrenda Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2013ko abenduaren 17ko (EB) 1303/2013 Erregelamenduaren 115. artikuluan adierazitako zerrenda publikoan jasoko da.

l. Emakumeen eta gizonen arteko tratu- eta aukera-berdintasunari buruzko betebeharrak:

— Probetan edo elkarizketetan eta lanpostuetarako hautatzean tratu- eta aukera-berdintasunaren eta emakumeen eta gizonen arteko diskriminazio ezaren printzipioa aplikatzen dela bermatzea

Dokumentazio, publizitate, irudi edo material guztietan, hizkuntza ez sexista erabili beharko dute, saihestu beharko dute emakumeen irudi diskriminatzaile edo estereotipo sexista oro, eta irudi jakin bat sustatu beharko dute, balio hauek izango dituenak: berdintasuna, emakume eta gizonen presentzia orekatua, aniztasuna, ardura partekatua, eta rol eta genero-identitate pluralak.

m. Kontratatutako pertsonen adostasuna lortzea, haien datuak Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren eskura jartzeko, eskatutako diru-laguntza kudeatzeko soil-soilik, eta deialdi honen 24. artikuluan xedatutako edukiaren berri ematea kontratatuei.

02 Era berean, praktikaldiko kontratu bat amaitzean bete beharko den betebeharrak espezifiko gisa, enpresak ziurtagiri bat egin behar dio langileari. Hor, honako hauek jaso behar dira, gutxienez:

- Kontratuaren iraupena.
- Betetako lanpostuak, eta bakoitzean egindako zeregin nagusiak.

02. Lan-eskaintzak biltzeko, erregistratzeko eta kudeatzeko erakunde kolaboratzaileak

Hauek izan ahalko dira onuradunak:

- 2015eko urtarrilaren 23ko Ebazpenaren arabera (2015eko otsailaren 2an argitaratu zen), bitartekotza-zerbitzua ematerakoan jarduera hauek gauzatzeko baimena dutenak, enplegu-eskaintzak erregistratu eta kudeatzeari dagokionez eskusiboki.
- Hurrengo erakunde hauek izendatu ahalko dira zentro laguntzaile, deialdi honi berariaz lotutako lan-eskaintzak biltzeko eta erregistratzeko, baldin eta egoitza EAEn badaude:
 - Unibertsitateak.
 - Lanbide heziketako ikastetxe publikoak eta itunpeko pribatuak.
 - Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren erakunde kolaboratzaileak, 2020-2022ko deialdiko lanerako prestakuntza emateko dirulaguntzen eta 2019-2021eko deialdiko lanerako orientazioa emateko dirulaguntzen onuradun badira.
 - Udalak, mankomunitateak, kuadrillak, tokiko garapenerako agentziak eta Behargintzako zentroak.

ESKABIDEA I.ERANSKINA

Eskabideak aurkezteko **epea 2021eko uztailaren 30 artekoa** izango da, deialdi hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

03. Kudeaketa eta trantsizio-prozesuaren jarraipena egiteko erakunde kolaboratzaileak

Hauek izan ahalko dira onuradunak:

- Unibertsitateak eta lanbide-heziketako ikastetxe publiko eta pribatu itunduak.
- Trantsizio-prozesuaren kudeaketa eta jarraipentzat joko dira erakunde kolaboratzailearen jardura hauek:
 - Enpresak zuzenenean hautatu dituen gazteen lan-eskaera berreskuratzea, beritzea, berikustea eta aldatzea.
 - Kontrataturako gazteak kontratua sinatu aurreko egunetik hasita, gutxienez, Gazte Bermea Sistemari izena emanda daudela egiaztatzea.
 - Enpresak zuzenean hautatu dituen gazteek, kontratua sinatzeko unean, 5.1 artikuluan adierazitako baldintzak betetzen dituztela ziurtatzea eta bermatzea.
- Kontratu hori kontratatutako pertsonak egindako ikasketen edo prestakuntzaren mailari egokitutako praktika profesionala lortzeko bidea eman behar duen lanpostu baterako dela egiaztatzea.
- Prestakuntza Duala enpresan amaitu duten pertsonen kasuan, prestakuntza hori hezkuntza-sistemako Lanbide Heziketako titulu bat lortzeko bada, kontratua mugagabea dela edo gutxienez 12 hilabeteko praktikaldiko kontratua dela egiaztatzea.
- Kontrataturako pertsona Lanbideko informazio-sisteman identifikatzea Lehen Aukera programaren bidez sustatutako kontratu bati lotutako pertsona gisa.

ESKABIDEA I.ERANSKINA



Eskabideak aurkezteko epea **2021eko uztailaren 30 artekoa** izango da, deialdi hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.



04

Kontratutako pertsonak bete beharreko baldintzak

01 16 urte baino gehiago eta 30 urte baino gutxiago duten gazteak eta honako baldintza hauek bete beharko dituzte:

- a. Euskal Autonomia Erkidegoan bizitzea.
- b. Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuan lan-eskatzaille gisa izena emanda eta alta-egoeran egotea, eta kontratua hasteko bezperan langabea izatea.
- c. Honako multzo hauetakoren batean zehaztutako tituluren bat izatea:
 - Lizentziatura, Ingeniaritza, Arkitektura edo Masterra-Boloniako Plana.
 - Unibertsitateko diplomatura, Ingeniaritza teknikoa, Arkitektura teknikoa edo Unibertsitateko Gradua - Boloniako Plana.
 - Araututako lanbide heziketako edo berariazko lanbide heziketako goi-edo erdi-mailako teknikaria. Honako bi tituluak ere aurrekoen baliokideak dira: teknikari laguntzailea (LH1) eta teknikari espezialista (LH2).
 - Oinarizko lanbide heziketa.
 - Ofizialki, aurrekoen baliokidetzat hartutako beste titulazio batzuk.
 - Profesionaltasun-ziurtagiria.
- d. Tituluarekin lotutako enpleguetan 6 hilabeteko esperientzia izatea gehienez ere.

02 **Gazte Bermea Sisteman** izena ematea:

- a. **Enpresak zuzenean** egindako hautaketa-prozesuan, kontratatutako gazteak **Gazte Bermea Sisteman izena emanda** egon beharko dute.
- b. **Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak, bere bulegoen edo zentro kolaboratzaileen bidez**, hautaketa-prozesuan, **lehentasuna emango zaie Gazte Bermea Sisteman izena emanda** daudenei, urriaren 15eko 18/2014 Legeak, —hazkuntza, lehiakortasuna eta efizientzia sustatzeko urgentziazko neurriak onartzen dituenak— ezarritakoari jarraituz.

03 **Prestakuntza Duala** egin duten enpresa berean gazteak **zuzenean hautatuta** egiten diren kontratuetan, prestakuntzaren xedea izan bada hezkuntza-sistemako Lanbide Heziketako titulu bat lortzea, **kontratu mugagabeak** izan beharko dute, **edo gutxienez 12 hilabeteko praktikaldiko kontratuak**.

04 Lehen Aukera **praktikaldiko kontratuaren** modalitatea baliatuta **aurreko edizioen batean** kontratatu ziren pertsonak oraingo deialdiaren ondorioetarako kontuan har daitezke kontratu **mugagabearen modalitatean soilik**, jada eskuratu duten lan-esperientzia gorabehera, baldin eta kontratu mugagabea egiten duen enpresa ez bada praktikaldiko kontratua egin zuen enpresa berbera.

05

Parte hartuko duten gazteak hautatzeko prozedura

Programan parte hartuko duten gazteen **hautaketa** (eta kontratazioa) eskabidea aurkeztu baino lehenago egingo da, prozedura honi jarraituz:

1. Enpresak zuzenean hautatuta.
2. Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren bidez edo haren kolaboratzaile den erakunde baten bitartez.

01. Enpresak zuzenean hautatuta,

erakunde kolaboratzailea den zentroaren bidez, non **2020.** urtetik aurrera titulazioa lortzeko kontratatuko den gazteak bere ikasketak bukatu baititu, behin Euskal Autonomia Erkidegoko enpresa zentro(et)an **2020-2021**eko kurtso akademikoan prestakuntza epealdia egin eta gero hauetako ereduren batean:

- **Prestakuntza duala**, prestakuntzaren xedea hezkuntza-sistemako Lanbide Heziketako titulu bat lortzeko denean.
- **Bekak**, Hezkuntza-sistemako lanbide-heziketako tituluren bat lortu aurretik enpresan prestakuntza jasotzeko Eusko Jaurlaritzaren programaren baten babesean emandakoak.
- **Bekak**, Unibertsitate-eremutik lan-eremura igarotzeko trantsizio gisa Eusko Jaurlaritzaren programaren baten babesean emandakoak.

Enpresak, kontratuak egin aurretik, kontratatuko den pertsonak ikasketak egin dituen prestakuntza-zentrori joko du, baldin eta prestakuntza-zentroak lortu badu **trantsizio-prozesua kudeatu eta jarraitzeko erakunde laguntzailearen** izaera, ikastetxeak egiazta dezan 5.1 eta 5.2.a artikuluetan ezarritako baldintzak eta 13.5 artikuluan adierazitako kudeaketaren eta prozesuaren jarraipenaren gainerako xehetasunak betetzen direla.

02. Enplegu eskaintzen kudeaketa,

Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren bidez edo haren kolaboratzaile den erakunde baten bitartez gazteak kontratatzeko, enpresak zuzenean hautatuta barne ez diren kasuetan:

- Hautaketarako, [eskaintza kudeatzeko eskaera](#) bat aurkeztu beharko da bete beharreko lanpostuaren profil bakoitzeko. Eskaera hori inprimaki normalizatu baten bidez aurkeztu behar da, deialdiaren [IV. eranskinean](#) ezarritako ereduaren arabera.
- Eskaintza kudeatzeko eskaera bakoitza jasotzen duen bulegoak edo erakunde kolaboratzaileak erregistratuko du eta Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren bitartekaritza-sisteman identifikatuta geldituko da. Eskaintza erregistratu ondoren, enpresari jakinaraziko zaio haren erreferentzia
 - [Lehentasuna](#) emango zaie [Gazte Bermea Sisteman izena emanda daudenei](#), 5.2 artikuluan ezarritakoari jarraituz.
 - Lehen Aukera praktikaldiko kontratuaren modalitatea baliatuta aurreko edizioen batean kontratatutako ziren pertsonak oraingo deialdiaren ondorioetarako kontuan har daitezke kontratu [mugagabearen modalitatean soilik](#), jada eskuratu duten lan-esperientzia gorabehera, baldin eta kontratu mugagabea egiten duen enpresa [ez bada praktikaldiko kontratua egin zuen enpresa](#) berbera.
- Eskaintza bat kudeatu ondoren hautagai gisa bideratu diren pertsonen egindako kontratuak baino ez dira diruz lagunduko
- Kontratu bakoitzaren komunikazio-prozesuan, enpresak nahitaez adierazi beharko du kontratu horri dagokion eskaintzaren erreferentzia.

A blurred background image of a desk setup. It includes a silver laptop in the upper right, a spiral-bound notebook with a silver pen resting on it in the center, and a black smartphone in the lower right. The overall tone is light and professional.

06

Kontratua amaitzea

Praktikaldiko kontratuen kasuan, kontratuen gutxieneko iraupena eskatutakoa edo diruz lagundutakoa izan beharko du, eta kontratu mugagabeen kasuan, berriz, **24 hilabetekoa** izango da gutxienez.

Probaldia ez gainditzeagatik edo bidezko kaleratzea deklaratzegatik lan-kontratua amaitzen bada, kontratatutakoak lana bere borondatez uzten badu, edo hiltzen bada edo ezinduta gelditzen bada:

**7 egun kontratua
amaitzen denetik**



**Lanbideri horren berri emateko, kontratatutakoak lan
egindako aldiaren zati proportzionalaren arabera diru-
laguntza doi dezan**

Kontratu-harremana lehen aurreikusi ez den beste kausaren batengatik amaitu bada, diru-laguntza oso-osorik itzuli beharko da, deialdi honen 23. artikuluan ezarritakoari jarraituz.

Enpresak beste pertsona bat edo batzuk kontratatu nahi baditu, beste eskabide bat aurkeztu beharko du, deialdi honetan aurreikusitako epean eta eran.

The background of the slide is a grayscale photograph. In the lower-left corner, a portion of a black calculator is visible, showing buttons for '6', '3', '+', '=', and a decimal point. A silver pen lies diagonally across the upper right. Below the pen, a ruler with numerical markings is visible, showing numbers like 25, 28, 31, 34, 37, 40, 43, 46, 49, and 52. The overall image has a soft, slightly blurred quality.

07

Diru-laguntzaren zenbatekoa

Enpresak

Praktikaldiko edo mugagabeko kontratua, titulu akademikoaren arabera	Praktikaldiko kontratua		Kontratu mugagabea	Praktikaldiko kontratua		Kontratu mugagabea
	Diru-laguntza 6 hilabeterako	Diru-laguntza 12 hilabeterako		Diru-laguntza 6 hilabeterako (Emakumea)	Diru-laguntza 12 hilabeterako (Emakumea)	
Lizentziatura, Ingeniaritza, Arkitektura edo Masterra-Boloniako Plana, Unibertsitateko diplomatura, Ingeniaritza tekniko, Arkitektura tekniko edo Unibertsitateko Gradua- Boloniako Plana	5.300,00 €	8.480,00 €	12.700,00 €	5.830,00 €	9.328,00 €	13.970,00 €
Goi-mailako heziketa-zikloak (LH II)	4.550,00,00 €	7.280,00 €	10.900,00 €	5.005,00 €	8.008,00 €	11.990,00 €
Erdi-mailako heziketa-zikloak (LH I), Oinarizko lanbide heziketa eta Profesionaltasun Ziurtagiria	3.500,00 €	5.600,00 €	8.400,00 €	3.850,00 €	6.160,00 €	9.240,00 €

— Diru-laguntzen zenbateko hauek lanaldi osoko kontratuei dagozkie, lanaldi partzialekoetarako lanaldiaren proportzioan doituko dira.

Erakunde kolaboratzaileak

Eskaintza biltzea eta erregistratzea: 120 €:

Eskaintza kudeatzea: 80 €

**Trantsizio-prozesuaren kudeaketa eta
jarraipena: 120 €**

} Zenbatekoak %10 handituko dira formalizatutako eta diruz lagundutako
20 kontratuko, enplegu-eskaintzak hartu, erregistratu eta/edo kudeatuko
baditu.

08

Eskaeraren aurkezpena



Diru-laguntza eskatzeko epeak

Dirulaguntza-eskabideak guztiak egoitza elektronikoaren bidez aurkeztu beharko dira, hau da, <https://euskadi.eus> helbidetik; Lanbideren webgunean, bertara sartzeko lotura bat egongo da.

ENPRESEN ESKABIDEAK



Lan-kontratuak egiteagatiko diru-laguntzaren eskaera:
EHAAn argitaratzen den egunaren biharamunetik

2021eko urriaren 29era arte

(diruz lagundu daitekeen kontratuaren azken eguna)

ERAKUNDE KOLABORATZAILEEN ESKABIDEAK



Enplegu-eskaintzak biltzeko, erregistratzeko eta/edo
trantsizio-prozesuaren kudeaketa eta jarraipena egiteko
diru-laguntzen eskabidea:

2021eko azaroaren 2tik 12ra arte

09

Diru-laguntzaren ordainketa



Enpresak

- 1. ordainketa: 52% → diru-laguntza emandako unean (*)
- 2. ordainketa: 48% → edo justifikazioaren ondorioz dagokion kopurua (**)

(*) Lan-kontratuak egiteagatiko diru-laguntzaren eskaerarekin batera, honako dokumentu hauek aurkeztu beharko dira: Kontratuaren kopia, NAN/AIZ, identifikazio fiskaleko txartela, enpresa eratu dela ziurtatzen duten eskritura, senidetasunik ez izateari buruzko erantzukizunpeko adierazpena, enpresako batez besteko plantillaren justifikazioa bi txostenen bitartez («Alta egoeran dauden langileen batez besteko plantillaren txostena» GSDN egindakoak- RED sistemaren bidez eskuratuak-, enpresak EAEn dituen lantokiei buruzkoak: bat, kontratatutako pertsonari enpresan alta eman aurreko sei hilabeteei dagokiona, eta bestea, kontratazioaren alta egunari dagokiona) eta deialdi bakoitzean adierazten diren gainerako dokumentuak.

Gainera, enpresak gazteak zuzenean hautatzen dituenean, ikasketak egin dituen zentroarekin elkarlanean (7.1.a artikulua): Aurkeztutako kontratuan adierazitako titulua eskuratu izana egiaztatzen duen agiria eta kontratua egin den enpresan prestakuntza-aldia egin izana egiaztatzen duen agiria.

(**) Hilabeteko epean praktiketako kontratuak amaitu ondoren eta lan-kontratu mugagabeen kasuan, hasi eta urtebete igaro ondoren eta, edonola ere, **2022ko abenduaren 17a baino lehen**: Aurkeztu kontratatutako pertsonen zerrenda, kontratuen iraupena jasota.

Erakunde kolaboratzaileak



Ordainketa bakarra

Laguntza emateko ebazpena eman ondoren



10

Prozedura eta izapidetzea

Prozedura eta izapidetzea

Eskaerak izapidetzea	→	Aurkezten diren hurrenkeran aztertuko dira, eta hurrenkera horretan emango zaizkie diru-laguntzak deialdiko eskakizunak betetzen dituzten guztiei, harik eta finantzaketarako funtsak amaitu arte.
Izapidetzeko organo eskuduna	→	Lan Aktibazioko Zuzendaritza.
Ebazteko organo eskuduna	→	Lanbideko Zuzendaritza Nagusia.
Ebazpena	→	Gehieneko epea: 6 hilabete , eskaintza aurkezten den egunetik hasita. Administrazio-bidea amaitzen du.
Errekurtsoa	→	Aukerako berraztertze errekurtsoa, hilabeteko epean, edo Administrazioarekiko auzi-errekurtsoa, bi hilabeteko epean.

Publizitatea



Enpresa onuradunen zerrenda eta ematen diren kopuruak EHAA-n argitaratuko dira. Nolanahi ere, diru-laguntza emateko ebazpena berariaz eta banaka ere jakinaraziko da.

Jarraipena eta kontrola



Lanbide, Euskal Enplegu Zerbitzuak, Enpleguako eta Gizarte Politiketako Sailak, Ogasun eta Ekonomia Saileko Kontrol Ekonomikoko Bulegoak, Herri Kontuen Euskal Epaitegiak eta Europako Funtsak kontrolatzeko instantziek egin ahal izango dituzte deialdi honen helburuak beteko direla bermatzeko beharrezkoak diren ikuskaritza- eta kontrol-ekintzak. Horretarako, diruz lagundutako kontratazioei buruzko dokumentazio guztia gorde eta zaindu beharko du enpresak, gutxienez 2026ra arte, deialdi honen ondoriozko konpromiso eta betebeharrak guztiak betetzen dituela egiaztatu ahal izateko.

Diru-laguntza aldatzea



Baldintzen aldaketa horren ondorioz diru-laguntza osoa edo zati bat itzuli behar bada, itzultzeko prozedurari hasiera emango zaio.

Bateraezintasunak



Deialdi honetan aurreikusitako laguntzak bateraezinak dira kontzeptu eta helburu berberagatiko beste diru-laguntza, laguntza eta diru-sarrerekin; ez ordea, lan-kontratu mugagabeetarako edo praktiketako kontratuetarako Gizarte Segurantzari egindako kotizazioetako hobariekin.

Ez-betetzea

Deialdi honetako erakunde onuradunek jasotako zenbatekoak eta legezko interesak –laguntzak ordaintzen direnetik aurrerakoak– itzuli beharko dituzte, baldin eta honako xedapen hauetan oro har aurreikusitako betebeharrak betetzen ez badituzte: Diru-laguntzei buruzko Lege Orokorraren 14. artikulua eta Legegintzako Dekretuaren bidez onartutako Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bategineko 50.2 artikulua. Zenbatekoak eta interesak itzuli beharko dituzte, orobat, deialdi honetan ezarritako betebeharrak espezifikoak betetzen ez badituzte edo Diru-laguntzei buruzko Lege Orokorraren 37. artikuluan eta Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bategineko 53.1 artikuluan diru-laguntzak itzultzeko ezarritako kasuetako batean sartzen badira. Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiak abiaraziko du itzultzeko prozedura.

Itzulketa

15 eguneko epea emango da [alegazioak](#) aurkezteko.

Itzultzeko prozedura Lanbideko zuzendari nagusiak abiaraziko du, eta, horrela badagokio, egiteke dauden ordainketak etengo ditu.

Alegazioak aurkezteko epea igarotakoan halakorik aurkeztu ez badu edo onartu ez badira, Lanbideko zuzendari nagusiak ebazpena emango du. [Ebazteko](#) gehieneko epea [12 hilabetekoa](#) izango da.

Ebazpenaren arabera ez-betetzerik izan bada, interesdunak [bi hilabeteko](#) gehieneko epean itzuli beharko dizkio dagozkion kopuruak Lanbideri, [ebazpena jakinarazten denetik](#) zenbatzen hasita. Epe hori borondatezko epetzat joko da.

Borondatezko epearen barruan ordaindu ezean, premiamendu-bideari ekingo zaio.

Lehiakortasunari buruzko Europako Arautegia

Deialdi honetan, gazteak kontratatzeagatik zehaztutako laguntzek bat etori beharko dute "minimis" laguntzei Europar Batasunaren Funtzionamendu Tratatuen 107. eta 108. artikulua aplikatzeari buruz Batzordeak 2013ko abenduaren 18an egindako 1407/2013 (EE) Erregelamenduarekin (DOUE L352, 2013-12-24). Kalifikazio horren ondorioz, enpresa bakarrari "minimis" laguntzetan emandako guztirako zenbatekoa ezin izango da 200.000 euro baino gehiago izan hiru ekitaldi fiskalen barruan.

Muga hori aplikatzeko, kontuan hartu beharko da nola definitzen den "enpresa bakarra" Erregelamendu horren 2.2 artikuluan.

Dagokion ekitaldi fiskalean eta aurreko bietan jasotako minimis laguntza horiei buruzko aitortpena egin beharko du laguntza-eskatzen duenak, honako hau frogatzeko: minimis laguntza berriarekin ez dela gainditzen aipatutako erregelamenduan ezarritako muga maximoa.

Europako Gizarte Funtsak eta Gazte Enplegu Ekimenak kofinantzatutako direnez, dirulaguntza hauei xedapen hauetan ezarritakoa aplikatuko zaie: Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2013ko abenduaren 17ko 1303/2013 Erregelamendua (EB); Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2013ko abenduaren 17ko 1304/2013 Erregelamendua (EB), Europako Gizarte Funtzari buruzkoa eta Kontseiluaren 1083/2006 Erregelamendua (EE) indargabetzekoa, eta ESS/1924/2016 Agindua, abenduaren 13koa, Europako Gizarte Funtsak 2014-2020 programazio-aldian diruz lagundu ditzakeen gastuak zehazten dituenak. Europako Plus Gizarte Funtsak kofinantzatzen baditu, 2021-2027 Europako programazio-aldirako aplikatu beharreko erregelamenduei eta gainerako arauari atxikiko zaizkie.

Lan Aktibazioko Zuzendaritza

Dirección de Activación Laboral

ERAKUNDE LAGUNTZAILEAK BAIMENTZEARI ETA LAN-ESKAINTZAK KUDEATZEA

Laneratze Zerbitzua:

laneratze@lanbide.eus

945.181.330

ENPRESA ETA ERAKUNDE LAGUNTZAILEEK EGINDAKO DIRU-LAGUNTZETARAKO ESKAERAK

Enplegua Sustatzeko Zerbitzua:

lehenaukera@lanbide.eus

945.181.327 / 945.181.338 / 945.181.326